

Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa inguruko txori izenak

- *Accipiter nissus*: kabidade, kabillare (*orok.*); kabilla (B); gabiroi (Azp, B).
- *Actitis hypoleucos*: kulixka txiki (Z, Aiz)
- *Aegithalos caudatus*: kaskabeltx buztanluxe, kaskabeltz txiki (*orok.*)
- *Alauda arvensis*: kalandria (*orok.*); hegatxabal (Z); txirripito (E); txurtxurro (B)
- *Alcedo atthis*: martiñete (Azk, Azp, Aiz); makinete (Azp); markineta (E)
- *Alectoris rufa*: eper
- *Anas crecca*: ahate txiki; txertxeta, zertzeta
- *Anas platyrhynchos*: ahata, ahate
- *Anser anser*: antzar
- *Anthus sp.*: belartxori (Azk, Azp, E, Z); lurtxori (Azp, B); txiote (Z); txirta (Z); zelaitxori (Aiz)
- *Apus apus*: kataka (Azk); txeñada, txeñada beltz, txeñara beltz (Azp, Aiz, Z, E); txinada, txinara (B)
- *Aquila chrysaetos*: arranbeltz (Azp)
- *Ardea cinerea*: gartza
- *Asio otus*: hontz belarridun, hontz haundi
- *Athene noctua*: hontz txiki
- *Burhinus oedicnemus*: brankolin (Azp, B, E, Aiz); brankolin pintto (B); frankolin (Azk, Azp)
- *Buteo buteo*: arranbeltz (Azk, E, B); sapelats (Azp, B, E); zapelaitz (Z, Aiz)
- *Caprimulgus europaeus*: gautxori (*orok.*); gauilo (B)
- *Carduelis cannabina*: pardilo (*orok.*); txoka (Z)
- *Carduelis carduelis*: kardantxulo (Azp, Z, Aiz); g(u)ardantxulo (E, Azp); jilgero (Azk, B)
- *Carduelis chloris*: arbiazitxori (E); arbitxori haundi (Z, Aiz, B, Azp); berdelei, berderoi (Azp, Azk)
- *Carduelis spinus*: tarin
- *Certhia brachydactyla*: arbolatxori (Azk); okil txiki (Azp, E, Z, B)
- *Charadrius sp.*: kulixka txiki (Z, Aiz)
- *Cinclus cinclus*: urzozo
- *Circus cyaneus*: arranzuri (Azp); piztizuri (B); kukun aurreko hegazti (B); sainzuri, saizuri (E, Z, Aiz)
- *Coccothraustes coccothraustes*: txinpiñen gixoi (Azk); txintxinén giyoi (Azp); giyoi (B); txintxin mokohaundi (Azp)
- *Columba oenas*: uso txiki, paguso txiki (*orok.*); soloma, txoloma (E, Aiz); uso urdin (Aiz)
- *Columba palumbus*: paguso (Azp, Azk, B, E); pagouso (Z, Aiz); uso haundi (Z)
- *Corvus corax*: bela haundi (B); guardazibil (B)
- *Corvus corone*: bela (Azk, Azp, E, B); belabeltz (Azp); bele (E, Z, Aiz)
- *Corvus monedula*: belatxinga (*orok.*); bela txiki (Azp, E)
- *Coturnix coturnix*: galeper
- *Crex crex*: gixoi (Azk); giyoi (Azp, B, E, Aiz, Z)
- *Cuculus canorus*: kuku
- *Delichon urbica*: txeñada azpitxuri (Z, B, Aiz, Azp); txeñara buztantxuri (Azp); txinara (Azk, Azp,); txinara txiki (E)

- *Dendrocopos minor*: okil txiki
- *Erithacus rubecula*: txantxa(n)gorri
- *Falco tinnunculus*: kabidada txiki, kabilla(da) txiki, kaidare txiki... (*orok.*); gabiroi txiki (Azp, B); kaidore txiki (Z)
- *Ficedula hypoleuca*: txinbo (Aiz)
- *Fringilla coelebs*: kanpaxto (E); paandatxori (Z); pinpin (B); pintzana (Aiz); txinpin (Azk); txintxin (Azp, E)
- *Fringilla montifringilla*: paseko txintxin (Azp)
- *Gallinago gallinago*: mingor (Azk); estingor, istingor (Azp, E, B, Z, Aiz)
- *Gallinula chloropus*: uroillo (Azk, Z, B, Aiz, Azp); udoillo (E)
- *Garrulus glandarius*: eskiñaso, iskiñaso (E, Azp, B); eskiñoso (Azk); eskixo, iskixu (Z); exkiaso (Aiz)
- *Grus grus*: kurrillo
- *Gyps fulvus*: butre (Azk); putre (E, Z, B, Aiz, Azp)
- *Hirundo rustica*: txeñada azpitxuri (Azp, Z, B, Aiz); txeñara, txinada, txiñara... (Azk, E, Azp, E, B); txinera (Z)
- *Lanius collurio*: buruhaundi, txori buruhaundi (Azp, Z); iskiñaso txiki (B); mojatxori (Azk); txorihaundi (Azp, B)
- *Larus cacchinans*: kaio (E, B, Azp, Aiz, Z); kaixo (Azk)
- *Lullula arborea*: hegatzabal (Z); kalandria (Aiz)
- *Luscinia megarhynchos*: urretxindor (Azk)
- *Milvus milvus*: buztansarde (Aiz); isats-sardedun (B); miru (Azk, E, Azp, B); zapelatz gorri (Azp, B)
- *Motacilla alba*: buztainka zuri (Z, Aiz); buztanikara (E, Azk, B, Azp); buztanluze? (B)
- *Motacilla cinerea*: buztainka hori (Z, Aiz); buztanikara hori (E, Azk, B, Azp)
- *Muscicapa striata*: txinbo (Aiz)
- *Numenius arquata*: brankolin gorri (B); brankolin haundi (B); kulixka haundi
- *Parus sp*: kaskabeltx, kaxkabeltx (*orok.*); burubeltx (E)
- *Parus caeruleus*: kaskabeltx, kaxkabeltx (*orok.*); burubeltx (E); txantxaberde (E)
- *Passer domesticus*: kurloi (Azk); kaletxori (Azp); txorimotz (Azp); mokomotz (E, B, Azp, Z); hormatxori (E, Azp); elitzori (E); lurtxori (E); txorilapur (E); patxizahar (Z, Aiz)
- *Phoenicurus ochruros*: buztangorri
- *Phylloscopus collybita*: eltxotxori (Azk); txepetxuri? (B); txio (Azk, Azp); txiota? (B); txoritxiki (E, Azp)
- *Pica pica*: mika
- *Picus viridis*: okil
- *Prunella modularis*: sasitxori (Azk)
- *Pyrrhocorax pyrrhocorax*: belatxinga (E, Azp); bela hankahori (B)
- *Pyrrhula pyrrhula*: martinpolit (Aiz); kui (Azk); loratxori (Azp); motatxori (Azk, E, Z, Azp); txorigorri (Azp); azpigorri (E)
- *Rallus aquaticus*: txota (Aiz)
- *Saxicola torquata*: otatxori, otetxori (Azp, Azk, E, B,); txartxara (Aiz)
- *Scolopax rusticola*: oillagor
- *Serinus serinus*: txirriskilla (Azk, Azp); txirriskillo (Azp); arbitxori txiki (Aiz, B, Azp); arbiazitzori (E, B)
- *Sitta europaea*: arbolatxori (Azk); okil txiki (Azp); okiltxori (E, Z, B, Azp)

- *Streptopelia turtur*: tortola
 - *Strix aluco*: hontz
 - *Sturnus vulgaris*: arabaxoxo (Azk, Azp, E, B); gaztalazozo (Z, Aiz); haragi-xoxo (B)
 - *Sylvia atricapilla*: txinbo kaskabeltx (Azk); kaskabeltx (B, E, Aiz, Azp); pikotxori (Azp)
 - *Sylvia borin*: pikotxori, pikutxori (Azp, Aiz); txinbo (Azk, Azp)
 - *Tetrao tetrix*: basoillo (E, B, Azp); mendioillo (Azk, Z, B, Aiz, Azp)
 - *Troglodytes troglodytes*: txepetx
 - *Turdus iliacus*: paseko birigarro (E, Aiz, Azp); birigarro gorri (Azp); itsas-birigarro (Azp); zelaiko birigarro (Aiz); begiarro txiki (B); paseko begiarro (B)
 - *Turdus merula*: xoxo, zozo
 - *Turdus philomelos*: birigarro (Azk, Azp, Z, E, Aiz); begiarro (B)
 - *Turdus pilaris*: kazkardo beltz (Azp); itsas kazkardo (E)
 - *Turdus torquatus*: zozo lepotxuri, zozo lepazuri
 - *Turdus viscivorus*: kaaxtarro, kaaztarro (Azk, Aiz, Z, B); kaxkardo, kazkardo (Azp, B, E)
 - *Tyto alba*: hontz zuri
 - *Upupa epops*: argioilar
 - *Vanellus vanellus*: hegabera
-

Herri-markei dagokienez, ondorengoa izan behar dugu kontuan:

- Herri-markarik ez badut sartu, izen hori eremu guztian erabiltzen da.
- Izen bat gutxienez 4-5 herritan jaso badut, "orokorra" (*orok.*) marka erantsi diot. Ziurrenik eremu osoan ere erabiliko da, baina ezin dut ziurtatu.
- Gainontzekoetan, izena jaso dudan herria adierazi dut; horrek ez du esan nahi beste herri batzuetan ere ezagutzen edo erabiltzen ez direnik (izan ere, lexikoak erraz egiten du hegan herri batetik bestera, txoriek bezalatsu).
- **Aldaera guztiak ez** ditut sartu. Esate baterako, *birigarro* sartu dut eta ez ahozko forma guztiak (*bidigarro, biigarro, biriarro, biarro...*).
- Oso azaleko azterketa eginez, **3 eremu ezberdinduko** nituzke: batetik Azkoitia; bestetik Azpeitia (Nuarbe, Urrestilla), Errezil eta Beizama (Azpeitira begira bizi diren herriak); amaitzeke, kostalderantz dauden Aizarnazabal eta Zestoa (Aizarna barne).